BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

110

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 10ekoa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Gipuzkoako lurralde-ordezkariarena, zeinen bidez adierazten baita «ur mineral industrial» direla, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Azpeitiko udalerrian dagoen «Barrenetxe» izeneko iturburuko urak.

Ikusi da Meategien teknikariaren 2014-12-05eko txostena, Eneko Etxeberria Bereziartua jaunak Azpeitiko Udalaren ordezkaritzan aurkeztutako eskabideari buruzkoa, zeinen bidez adieratzen baita «ur mineral industrial» direla Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Azpeitiko udalerrian dagoen «Barrenetxe» izeneko iturburuko urak. Eta ebazpen hau ematen da:

Lehenengoa.– Adieraztea «ur mineral industrial» direla «Barrenetxe» izeneko iturburuko urak.

Bigarrena.– Adierazpen honetan aipatu urak onura publikokoak direla adieraztea, 2857/1978 Errege Dekretuaren 39.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.– 2857/1978 Errege Dekretuaren 40. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtebeteko epea ematea, adierazpen-ebazpena argitaratzen edo jakinarazten denetik aurrera, uren aprobetxamendua eskatzeko lehentasunezko eskubidea erabil dezaten, aplikatzekoa den sektoreko araudiak erregulatutako modu eta baldintzetan.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Donostia, 2014ko abenduaren 10a.

Ahalmenak eskuordetuta (2014-09-03ko Ebazpena),

Lurralde-ordezkaria,
JAVIER URRUTIA GUTIÉRREZ.